

Hitzaurrea

Fernando Plazaola Muguruza

Dagoeneko 30 urte pasa dira **EKAIA** Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia aldizkariaren 0 aleak, 1989 urtean, argia ikusi zutenetik. Unibertsitatea jaio zenean erabat erdalduna zen, euskal hiri gehienetako gizartea zen bezalaxe. Gainera hainbatek ez zuen uste Euskarak balio zezakenerik maila guztietan erabilia izateko, eta are gutxiago unibertsitateko zientzia eta teknologia mailan. Azken hau ezeztatze eta euskararen baliagarritasun osoa argiro erakusteko, dagoeneko urratsak eginak ziren bai Udako Euskal Unibertsitatean, zientziako unibertsitate irakasle euskaldunak trebatzeko balio handikoa izan dena, zein Elhuyarren. UPV/EHU unibertsitate publiko berriak, gizarteratze oso bat nahi ba zuen euskara bere nortasunaren maila guztietan txertaturik beharko luke. Baina bidea ez zen erraza, unibertsitate erdaldun batean euskara oso hondoan murgildurik zegoen. Ahaleginak ahalegin 1986 urtean Jacinto Iturbe bihurtu zen UPV/EHUko lehen edo estreinako Euskara Errektoreordea, eta honek **EKAIA**ren lehen sasoiari ireki zion bidea.

0 alearen aurkezpenean, Jacinto Iturbek berak idazten du, aurkezpen gisa:

«Aldizkari hau, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek bultzatuta, naturaren gainean eginiko ikerkuntza euskal gizarteari hel erazten saiatuko da, zientzia sortzen denetik aplikatzen denerainoko bidea errazago egiteko asmoz»

eta Martxel Ensunzak, **EKAIA**ren bultzatzaile sutuak eta lehen sasoi honetako **EKAIA**ren buruak, aurkezpen horretan honako hau idazten du:

«Ale honetako artikuluko guztiak irakasle batzuk eginikoak badira ere, ikasleak ere ekarri nahi ditugu **EKAIA** honetara, zeren rockero zaharrak inoiz hilgo ez badira ere, garrantzitsua baita rockero berriak plazazartzea, rock musikak iraungo badu behintzat.»

Lehen sasoiako ekimen honek ez zuen gehiegi iraun, 0 eta 1 aleek argia ikusi zuten, baina 2 aleak zabalkunde oso urria izan ostean ekimen hau 1990 urtean amaitu zen.

Aipatu beharra dago lehen sasoi honetan 22 artikulua argitaratu zirela, eta horietatik, hiru izan ezik, beste artikulua guztiak Zientzia Fakultateko (egun Zientzia eta Teknologia Fakultatea) irakasleek idatziak ziren. Berau, Zientzia Fakultateko hainbat irakasleren euskaraz idatzitako goi-mailako dibulgazio zientifikoaren aldeko grinaren adierazle argia da.

Garai hura ederra izan zen, gero eta euskaraz irakasgai gehiago irakasten ziren Zientzia Fakultatean eta irakasle euskaldun berrien kopurua handituz zihoan. Gogo handia zegoen euskarak, gutxienez gaztelaren presentzia, lor zezan Fakultatean. Irakasle horien apustuak bat izan zen **EKAIA** berriro plazaratzea, ez baitzegoen zientzia eta teknologian goi-mailako dibulgazioa euskaraz egiten zuen aldizkaririk. Honako hitzak erabili zuten **EKAIA**ren berragenerako egin zuten triptikoan:

«Orain, EHuko irakasle-talde batek, indarberriturik eta hornikuntza hobearrekin, inoiz utziriko bideari berrekin dio, bateratasun terminologikoak eta kontzeptu zein aurkikuntza berrien etengabeko agerpenak horrela eskatzen dutelakoan». Triptikoan eta 3. alearen aurkezpenean, helburuak ere, argiro azaltzen dira:

«EKAIA aldizkaria oinarrizko formazio zientifikoa duten irakurleei bideratuta dago haren helburuen artean ondokoak daude: zientzia eta teknikaren alorretan egiten diren aurrerapenak plazaratzea, unibertsitateko ikasleei zein irakaskuntza ertaineko irakasleei testuliburuaren osagarriak izango diren materialak eskaintzea, esparru zientifiko-teknikoan euskararen estandarizazioa bultzatzea, eta esparru honetan hizkuntzaren erabilerak sortzen dituen arazoak konpontzen laguntzea. Xede honekin, urtean bitan (udaberrian eta udazkenean) plazaratuko den EKAIAk, alor zientifiko desberdinetako artikulua bilduko ditu.»

Hirugarren alearen ostean **EKAIA** ez da gelditu, etengabeko abiadan jarraitu du. Ezagutzen dugun gizarteari azken urte luze hauetan gertatu zaion bezalaxe, **EKAIA**ri ere aurrera bideko aldaketa oso nabarigarriak gertatu zaizkio. Lehen urtetan Zientzia eta Teknologia Fakultatean izan zuen **EKAIA**k habia bereziki. Idazle gehienak bertakoak ziren eta **EKAIA**ren ardua nagusia bertako irakasleek eraman zuten. Martxel Ensunza, Fernando Plazaola, Kepa Altonaga eta Josu Jugo irakasleak izan ziren lehen zuzendari-koordinatzaileak hain zuzen ere. Hala ere, apurka-apurka erredakzio bazterdera gero eta zentro desberdinetako irakasleak sartzen joan ziren. Izan ere, honako zentrotakoak: Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskola (3. aletik aurrera), Informatika Fakultatea eta Kimika Fakultatea (6. aletik aurrera), Donostiako Eskola Politeknikoa eta Farmazia Fakultatea (22. aletik aurrera) eta 2014 urtean (27. alean) zabalkundea are handiagoa izan zen «talde editorialak» 40 pertsona baino gehiago edukitzera pasa zenean, eta unibertsitatetik kanpoko adituak bertaratu zituenean ere. Zorionez **EKAIA**

handia egin zen, habiatik atera eta Koordinatzaile nagusia Farmazia Fakultateko adar batean pausatu zen, koordinatzaile nagusia Jon Zarate bihurtuz lehenik eta segidan Asier Vallejok hartu zuen **EKAIA**ren gidaritzza. Egun ziurta daiteke, erraza izan ez bada ere, Zientzia eta Teknologia esparruko agente gehienei **EKAIA** heldzen zaiela, eta gehienak toki bat dutela **EKAIA** aldizkarian.

EKAIAren beste aurrerapen garrantzitsua izan zen urtean behin gai konkretu bati buruzko ale berezi bat plazaratzea. Lehena, gero eta garrantzitsuago bilakatzen ari den klima-aldaketa gaiari buruzkoa, 2012 urtean plazaratu zen eta harrez gero beste bost plazaratu dira. Beraz, 30 urte pasa ostean 35 ale arrunt eta 6 ale berezi plazaratu dira eta artikuluen kopuruak 500 zenbakia gainditzen du, ez da makala!!!

Bitartean, **EKAIA**k aurrerapen teknologikoei muzin egin gabe, 2007an digitalizazioarekin hasi zen, eta paperaz gain argitalpen digitalak sortzen hasi zen. 2015ean bilaketa eta identifikazio digitalerako DOIa erantsi zuen eta 2016ean sare sozialetara, Norteko Ferrokarrila irratsaioa, zientzia kaiera blogera, kongresuetara eta beste hainbat agertokietara heldu zen.

Joan den urtean, 2018an, **EKAIA**k CAF-Elhuyarren Merezimendu Saria jaso zuen, dibulgazioari eta euskarari egindako ekarpen eta ibilbide luzeagatik. Saria une oso aiposean heldu zen, **EKAIA**ren presentzia are eta toki gehiagoetara zabaltzen ari denean eta idazle kopurua nabarmenki handitzen ari denean.

Amaitzeko Martxel Ensuznak **EKAIA**ren 0 alearen aurkezpenean idazitakoari erantzuten diot: Zorionez, rock musikak irauten du Martxel. Bai, horixe baietz, rockero berri asko ditugu plazan, eta eurei esker egun **EKAIA** oso-oso bizirik dago!!!

Gai izan dadila, **EKAIA**, gutxienez beste 30 urtez euskaraz sortutako goi-mailako dibulgazio zientifikoa eta teknikoak toki guztietara are gehiago zabaltzen.